

Euskarazko egunkariaren etorrerak aldirizkariaren ekologia aldatu egiten du. Baina nola?

Oso zaila da, orain-oraingoz, erantzun mamitsurik eman ahal izatea. Bidea ibiliz egiten da, eta ikusi egin behar da egunkariak berak zer plaza hartzen duen, aldirizkariaren berkokapena planteatzen hasia urretik. Hori bateko. Eta besteko, ezin da erantzun orokor bat eman, aldirizkari guztientzako balio dezakeena alegia, aldirizkari mota guztietan ez bait du eragin berdina izango egunkariak.

Eragina eta eragina dago, gainera. Adibidez, eragina produkzioan, eragina irakurlearen eta eragina edukinean. Goazen puntuz puntu.

Egunkari bat kazetariaren lanetik eta berriemaitetik bizi da. Bai, baina ez osoko. Zenbait sail idazle eta intelektualen emaitzez hornitzen da. Beraz, «lanpetuago» izango ditugu «ludunak» aurrerantzean. Zein neurritan gerta dakiguke hau konpetentzia? Agian bai, baina, orohar, eztabaida intelektualaz azkartu eta bizitu egingo du honek, eta hori aberastasuna da.

Euskal irakurlearen egiazko absorzio-kapazitatea da bigarren puntua. Ahalmen hori irakurketa mailan. Jakina da neu-

EGUNKARIAREN ONDOAN, ALDIRIZKARIAK

JOAN MARI TORREALDAI
(Jakin aldirizkariaren zuzendaria)



rri on batean irakurle-kopuru bera dugula aldirizkari gehienok. Ahalbide mugatuetaoetan zein aterako da galtzaile, adibidez, Egunkaria, Argia edo Jakin?, nahiz eta produktu ondo diferentziatuak izan berez.

Hirugarren puntua -eta nagusia edukinari dagokiona da. Esan dezadan hasie-

ratik egoera saneatzea dakarkeela egunkariak, normalizatzea alegia. Izan ere, zenbait aldirizkari gaur egun «nahasiegia» da eredu aldetik, eta eredu jakineko zenbait ere «zabalegi» da. Badi-ra, eredu garbi baten faltaz, homologatzen erraz ez diren aldirizkariak. Eta badira definizio eskasekoak

gai-eremuetan, dibulgazio mailan, edukinetan. Produkzio-egituraren ahuleziak eta bakardadeak eraman ohi ditu aldirizkariak egoera horretara. Bakardadeak, bai, aldirizkari bakoitza bere sailean konpetentzia eta akulu gutxi bait du bere produktua hobeto definitzeko eta zehazteko.

Egunkariak, alde honetatik, neurri apal batean bada ere, «normalizatu» egingo du aldirizkariaren ekologi-oreka eta bakoitza bere lekuan jartzen lagundu. Astekaria «astekariago» izan da, eta hilabetekaria «hilabetekariago», kultur aldirizkaria «kulturalago»; eta herri mailakoa, «herritarrago».

Egunkariak dakarkeen aldirizkariaren desplazamenduak bi norabideetan eragingo du batez ere, goi-aldera eta lokalera. Egunkariak bere leku propioa hartzen duenean, newsmagazinek eta kultur aldirizkariaren informazioaren tratamendu-maila goragokoa edo/eta sakonagoa landu beharko dute. Gehien «sofri» dezakeena Argia izan daiteke. Herri zein eskualdeetako aldirizkariak ere bere leku propioa bidaliko ditu, hau da, lekuan lekuko informazio eta gaitara.

Hil nahi ez duen aldirizkariak aurki dezala berari dagokion lekua eta lekune horretatik erakutsi bere balioa: horra euskal egunkariaren balio erantsia.